



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




adats ilea, melena	«...ipintzen nauen atzamarrak adatseko ile kirikolatuen artean sartzean...»	55
adore gogoa, kemena	«...lur jota geratu zen, batere adorerik gabe aurrera jarraitzeko.»	124
adur lerdea	«...lurrean adurra zeriela zeuden lagunei lizunkiro begiratuz...»	104
ahoa bete hortz harrituta, sor eta lor	«Zerbitzaria lanera itzuli zen marmarka eta hiru lagunak ahoa bete hortz geratu ziren.»	99
aitzurra harrapatu mozkorraldi itzela	«...San Prudentzio bezperan sekulako aitzurra harrapatu eta hurrengo goizean ohean geratu behar biharamun itzelaz.»	73
aitzurtuta mozkorrik	«Gainera aitzurtuta dagoenean ze astuntxo ipintzen den.»	56
albait lasterren lehenbailehen, ahalik eta lasterre	« Albait lasterren itzuliko naiz eta hemen aurkitzea espero dut.»	80
alboratu baztertu	«...itxurikeriak alboratu eta, antsietateak bultzatuta...»	92
aldra andana, multzoa	«Nota onei esker sartutako estudiante ikastun aldren artean eskola zaharreko mohikanoren bat bilatzen saiatzea.»	49
aldrebeskeria trauskileria, barrabaskeria	«...bestalde, egin ditudan aldrebeskeria guztiak isun bat ordainduta konpentsatzea espero dut.»	67
alienatu nortasuna galdu, automata bihurtu	«—Aspaldi esan nizuen nire printzipioek eragozten didatela egunero lan alienatzailean jardutea.»	130
alperkerixa alferkeria	«Horrenbeste alperkerixa ... hori dana ez da egixe izango, ezta?»	14
alproja tunantea	«Azken urteotako bizimodu alprojaz zeharo damututa, herrira itzuli zen, gurasoenera, bere esperientzia aprobeztatuz familia berriro batzen saiatzeko...»	46
amarru trikimailua, azpikeria	«...azkenean eskuratu zuten zeregin hura, zenbait amarruren bitartez.»	88
amarru tranapa, azpikeria, maltzurkeria	«...azkenean eskuratu zuten zeregin hura, zenbait amarruren bitartez...»	88
amu tranpa, antzueloa	« Amu gisa mezu kilikagarri eta ausarta sartu zuten sarean...»	92
apal xumea, umila	«Dena dela, handik soldata apala ateratzen hasi ginen...»	113
apetatsu kapritxosoa	«...bezero apetatsuak harrigarriro kitzikatuz.»	31
apropos egokia	«...beste toki apropos bat inguruko arropa-denda dotoreen erakusleihoen aurrealdea izaten zen...»	91
arakatu miatu, aztertu	«Une horretan hiru bekadunak begiradaz lokal hartako bazter guztiak arakatzen hasi ziren, gero eta urduriago...»	95
arrapaladan presaka, korrika	«Zigor bera sartu zen arrapaladan , Enekeri aurrea hartuz...»	89
artega urduri	«...ederra izan da! Gainera, neskak artega nengoela ikusi du...»	90
astan jatan / jastan (bizk.) = zitzaidan	«Lotsagarrixe begittandu astan , lotsagarrixe!»	14
aukera anitzeko testa a-b-c-d erako testa	«...eta denekin bateda aukeda anitzeko tezt a pdezta du papedezko zedbileta hontan...»	65
aurretixe baino lehenxeago	«...iraila amaitu aurretixe berak aipatu baitzuen...»	132




azagari azeria, lukia	«...ikusten dodaz mando bi estartan, azagarie gitxi lez bitxo argie...»	12
azti igarle mago asmatzailea	«...jakingo du zer gertatzen ari den ezkutuan eta azti igarle batengana joko du.»	121
baldarkeria trauskileria, ganorabakokeria	«...“tebisino” eta horrelako baldarkerik gaur egun, hain euskera batu eder eta garbia degunian?»	12
bazilada zirikada, adar jotzea	«...kalean uzten ditudan pisukideen baziladak aguantatu behar izaten ditudala...»	74
bedeinkatu errito erlijioso batekin goresia	«...ze alde zuretik azti boteretsuak bedeinkatuta egongo da.»	123
begitandu iruditu	«Lotsagarrixe begitandu astan, lotsagarrixe!»	14
begitazio irudipena, aburua	« Begitazio hura ostegun gau batean izan omen zuen, urriko lehenengo ostegun gauean.»	114
behazun gibelaren isurkari mingotsa	«...leitzen du urazal gainean, behazuna neurtitzak zorrotzen, idazlea narruzko jantzian...»	9
behinik behin sikeran, behintzat, bederen	«Gipuzkeraz eingo balu behinik behin! »	12
behintzat bederen, behinik behin	«Horiexek ziren buruan erabiltzen genituen asmoak, behintzat. »	35
belardi kanpa	«...suertatuz gero, zertzuk egin genitzakeen belardi ederren baten etzanda...»	93
berba egin hitz egin, mintzatu, solastu	«Eta ez dut abisatuko! Argi egin dut berba? »	59
beronek hemengo honek	«Dena korapilatuko da beronek Joseba Gotzoni errebelatzen dionean Valeri ez dela gizon arrunta.»	121
berretsi ziurtatu	«Agertuko dira berretsi zuen ziurtasunez liburutegiko bekadunak...»	94
bidenabar bide batez	«Erran dezadan, bidenabar , zeure baitan ezkututzen diratekeen misoginia, pedofilia, manikeismo...»	19
biharamun ajea, otea (mozkorren ondorioa)	«...San Prudentzio bezperan sekulako aitzurra harrapatu eta hurrengo goizean ohean geratu behar biharamun itzelaz.»	73
bizipoz poztasuna, animoa	«Ia ez zuten barbarik egin arratsalde hartan, azken asteetan bizipoza eman zien esperientziaren amaiera zapuzgarriak edozertarako gogoa kendu baitzien...»	100
biziro biziki, asko ere asko	«Valeriri biziro maite zuen izaki hilkorren tresnaz zulatuko diote bihotza.»	123
buruhauste endredua, arazoa	«Eskutitzaren ondorioz sortu zitzaizen kezka, ordea, buruhauste ugari ekarri zien...»	91
burumakur goibel, hits, triste	«Berehala berriro jesarri eta burumakur geratu zen...»	98
burutsu inteligentea	«...moztu zuen Ritxik, estrategia burutsua bideratu nahian...»	96
buzkantza mortzila, odolostea	«...gau osoa daramat zakila buzkantza lez...»	55
buztantzar zakila handitua	«Hitz horiek esanda, Sofiak berriro Ritxiren buztantzarra ahoratu eta gora eta behera jarraitu zuen...»	107
degunian dugunean (gip.)	«...hain euskera batu eder eta garbia degunian? »	12
deliberatu erabaki, egitea pentsatu	«Atsegina hobeto banatu behar zela deliberatu genuen.»	39




delitugile delinkuentea	«Batzuetan gu geu ginen delitugileak , beste batzuetan herrietako lagunak.»	129
deust (ematen) dit	«...lotsa apur bat emoten deust hori esateak, baina...»	11
deutsat diot	«Joneri ez deutsat ezer pregunte gure...»	13
diru hots diruaren zaratta, erakarpena	«... diru hotsik ez duzuela entzuten, kantuak dioenez?»	10
egitasm proiektua	«Lo egiteko eragozpenez betetako zenbait gauren ondoren, Tonik bere hurrengo egitasm oz harritu nahi izan gintuen.»	119
egonezin urduritasuna, artega sentitzea	«...galdetu zuen Eneko urduriak, egonezinari eusteko ahaleginak...»	94
eguna urratu goiztiria	«... eguna urratzen hasi zen, goiz hozkirria zen.»	75
epiko heroikoa	«Istorio epikoa izango da, abenturetakoa...»	117
eragotzi oztopatu, trabak ipini	«— Aspaldi esan nizuen nire printzipioek eragotzen didatela egunero lan alienatzailean jardutea.»	130
erantsi gehitu, gaineratu	«Tira, besterik erantsi nahi ez baduzu...»	17
erraiak tripak, barrukiak	«— Erraietaraino sartuko dizut nire buztantzarra, urdanga hori!»	31
errapea behiaren esne tokia	«— Aldizkarietako titiak barik errapeak dira, eta horiek bai egoten direla silikonaz beterik.»	86
erratu errari ibili, noraezean	«Bere izaeraren ondorioz, betiko noraezean erratzera kondenaturik egongo da...»	117
errukitsu errukiorra, bihozbera	«Azkenik, pisukide errukitsuon isilpeko ekimenari asker, gure auzoko kultur elkarteak onartu zuen...»	124
eskuburdinak burdin lokarriak, esposak	«Orduan hiru neskek kutxa batetik eskuburdinak atera eta jolaskideen besoak atzerantz luzatuz, hodi batera lotu zituzten...»	104
estudixaten ikasten	«Eta gabin, etxin estudixaten geratu beharrin, kalera eztaize ordurarte.»	15
eztaize ez dakit zer	«Eta gabin, etxin estudixaten geratu beharrin, kalera eztaize ordurarte.»	15
eztenkada ziztada, ziria	«Azkeneko eztenkada lehenengo astean sartu zidan, telefono mobila erosi nuenean.»	126
fidel leiala, jarraitzailea	«Gabon, entzule fidel guztiok.»	9
flete aukera erraza, eskura erraza	«...penkatu beharko ditut, inork ez pentsatzeko flete hutsa naizela.»	58
gaingabetu koipea kenduta, desnatatua	«Dena dela, arazo txiki bat dago: esnea osoa da; ez da gaingabetua .»	72
galant ederra, itxura onekoa	« Galantak izateaz gain, azkarrak ere bazarete.»	102
galgarri hondamenekoa, akabukoa	«...kontsumismoaren bide galgarrian erremediorik gabe jarri behar omen gintuena.»	119
ganorabako arduragabea, axolagabea	«Hasierako ikasle ganorabako gehienak formalduz joan ziren.»	32
gaña gainera	«— Gaña , egun baten telebisinoin ikusi zindudazen...»	15




gogaitu aspertu	«...esan zigun gogaituoi afaloste batean, postrea hartu bitartean.»	121
goiztiar arina, garaia bainio lehenagokoa	«...ez direla umeenak bezain goiztiar »	57
guri-guri biguna	«...ba nik nahiago handi-handiak eta guri-guriak ...»	86
halandaze beraz, hortaz	«...hau errealitatea da, pailazo hori, halandaze ekarri azterketa eta ospa!»	61
hamaika aldiz askotan, sarritan	«...eta hamaika aldiz hil naute euren begiradekin.»	62
hats arnasa	«...sentitzen duzu nire hatsaren epeltasuna zure lepagainean?»	29
haxix kalamu droga	«Kartoizkoak ez ziruditen gailetak gustura bustitzeko, haxixez zipriztindutako jogurt krema goxoa.»	115
hazia semena, esnea	«...atera zitzaien hazia ahulegia zen...»	91
hedabide irradi-telebista, Internet	«Oker ez banaiz, zuk Martin, adiskide onak daukazazu hedabideetan , ezta?»	133
higuin nazka, antojua	«Txarrena da horrek ez ziola inori higuinik ematen; ez, behintzat, garbiketari ekiteko adinakorik.»	36
hizki-mizki esamesa, kotilleoa	«...irribarre maltzurra ezpainetan; hizki-mizkiren baten berri emateko gogoa daukan seinale.»	62
hodeiertz zerumuga, ostertz-horma, horizonte	«...gau ilunetan ez duzue eragozpenik aurkituko hodeiertzaz haraindiko plazerraren gailurreraino iristeko...»	93
hots egin telefonoz deitu	«—Eta nondik hots egin en diguzu?»	14
hozkirri freskoa	«Eguna urratzen hasi zen, goiz hozkirria zen eta etxe batzuetako argiak pizten hasi ziren.»	75
ilbetea ilargi betea	«—Guk proposatzen dugun egunean ilbetea dago.»	94
iltzaturik josita, erabat lotuta	«...itsatsita esan zuen Enekok ordenagailuaren pantailari iltzaturik ...»	101
iragarri aldez aurretik abisatu	«...etxeko txirrina jo zuen behin eta berriro Gaizkak baina, iragarri bezala, alferrik izan zen.»	75
iseka burla, trufa	«...hurrengo ordu eta egunak isekarako aproposak izan ziren...»	91
itaundu galdetu	«—Esperientzia goxoa izan da? — itaundu zion Enekok ikusi orduko.»	89
izengoiti ezizena, motea	«Nire ustez, hobe izango litzateke izengoitia erabiltzen hastea.»	133
jabilko (bizk.) dabilkio	«...bele baltza zozoari sarri jabilko kantari...»	13
jatzu / jat (bizk.) zaizu / zait	—Zer pasatzen jatzu ba? —Zer pasatzen jatan ?	22
jenial burutsua, asmazio bikaina	«Toniren ideiak baino askoz jenialagoa iruditu zitzaigun plan zehatza.»	127
jeniyu adorea, kemena	«...partidu guztitan halako jeniyua erakustiagatikan.»	17
joian (bizk.) zihoan	«...arduratuta eduki nozue, ze programea aurrera joian eta zuen deiak ez ziran sartzen.»	26




jorratu landu, tratatu	«Hemendik Aurrera, gai unibertsalena jorratuko dut, amodioa.»	120
kilikagarri zirikatzailea, erakargarria	«Han, zalantza kilikagarriz betetako segundo batzuen ostean, neskatila mintzatu zen...»	77
kinito alkohol nahasketa	«Gero, aurreko ikasturteen oroigarri, kinito basatia egin genuen eta amaitzeko kalera irten ginen, primeran pasatzeko asmoz.»	115
kirikolatu kirrua, kiribildua	«Sumatzen duzu orain nire bular zabaleko kizkur kirikolatuen azkuratxo bizkarreko azalean?»	30
kito nahikoa, akabo	«Orain, denbora alferrik galtzen ibiltzeke, ziztada txikia ematen da eta kito .»	90
kitzikagarri erotikoa, sentsuala	«Azken batean, halako hots kitzikagarriak ate baten atzetik edo telefonoaren beste aldetik entzutea...»	41
koipetsu zikina, ugerdoa	«...irakasle koipetsuz eta era guztietako keinu lizunak egiten zizkiguten pailazoz inguraturik...»	100
konpromiso engaiamendua	«... zeren badakigu agenda konpromisoz beterik daukazula...»	10
lakatx zakila, txurtena, txilibitua	«...zelako plazerra eman behar duen hor tartean lakatxa sartuta izateak...»	85
lako bezalako	«—Zurea lako antxoa txikia edukiz gero ez, jakina.»	85
lantzean behingo noiz behinkako, aldizkako	«Anduren lantzean behingo krisialdiak gorabehera, primeran funtzionatzen zuen.»	31
lantzoikeria lotsagabekeria, harrokeria	Horrenbeste berba feo eta juramentu, horrenbeste lantzoikeria , horrenbeste alperkeria...	14
larregiko demasa, gehiegizkoa	«Sekulako maila zeukan zentzu guztietan neska hark, Edurnek alegia; larregikoa kobazulo hartan gurekin bizi izatea onartzeko.»	35
larrutan egin txortan egin, amodioa egin	«...baina orain mundu guztiak egiten du larrutan nahi duenean, denbora lelokeriatan galtzen ibili barik.»	101
laudorio gorespina, alabantza	«...entzuleon mirespenezko laudorioen zain balego bezala.»	117
legetxe bezalaxe	«Ohartu nintzen ahohandi hutsak zinetela, mutil gehienak legetxe .»	48
leitu izoztu / irakurri	«...doinu bat olatuetan marrazten leitzen du urazal gainean...»	9
lelo errepika, esaldi egina	«—“Pixka bat gehiago ordaindu eta...” Non entzun dut nik lelo hori?»	111
lepagain kokota	«— Sentitzen duzu nire hatsaren epeltasuna zure lepagainean ?»	29
lilura erakargarritasuna, enkantua	«Ostiral gau hauek ez daukate ostegun gauen lilura, baina gustuko tabernak aukeratuz gero...»	64
lirain politik, finak	«—Eta zelako gorputz lirainak ! —erantsi zuen Enekok.»	96
lirdingatsu likatsua, adurtia	«Azkenean, erresistentzia talde bateko neska euskaldun bat izango da burua erabiliz izaki lirdingatsu horiei lurretik ihes eginaraziko diena.»	119
lizun sexuala, irtena	«...bere ohiko estiloaren arabera keinu lizunak eginez—.»	36
lizunkiro sentsualki	«...lurrean adurra zeriela zeuden lagunei lizunkiro begiratzuz eta arropak banan-banan erantziz...»	105
losintxa lausengua, balakua	«Hala ere, losintxen poderioz, azkenean lortu genuen, proba gisa behintzat, berak hartzea ardura hura.»	41



lur jota deprimituta, hondoratuta	«... lur jota geratu zen, batere adorerik gabe aurrera jarraitzeko.»	124
maisulana lan bikaina, goi mailakoa	«Zer falta zaizo maisulana izateko? Fantasia, abentura...»	117
makulu muleta	«...sar diezazula zure amamak makuluaren punta tripetaraino...»	30
malenkoniatsu tristurazkoa, oroitzapen tristekoa	«...eta bururatzen zitzaion gauza bakarra tronpetaz doinu malenkoniatsuak jotzea izaten zen...»	121
mamitsu sakona, esanguratsua	«Oraindik ez dizuet kontatu istorio mamitsu honetan balio sinboliko handiena izango duen esena.»	123
marmario marmarra, xuxurla orokorra	«...egoera normaldu eta lehenagoko marmarioa itzuli zen lokalera...»	99
melatuta blai eginda, enpapatuta	«...kearen usainaz melatuta nago...»	58
mesanotxe ohe ondoko mahaitxoa	«Berau koltxoian jesarri eta mesanotxeko kajoi barruan arakatzen hasi zen.»	80
mespretxuzko destaina, arbuioa	«...tabernari ilegorriaren mespretxuzko begiradapean , etxerantz joan ziren...»	100
mordo piloa, asko ere asko	«Han ere gure lagun zintzoak ordu estra mordoa bete zuen.»	34
murmurikatu xuxurlatu, ahapeka esan	«Ez dut jakin nahi zer ari diren murmurikatzen .»	59
muzin egin gutxietsi, baztertu	«...bizitzako plazer gehienei muzin egin da...»	32
nagikeria alferkeria	«Zer “bestelako” bizimodu da hori? Gurasoen diruaren kontura nagikerian bizi izatea?»	126
narrua aurpegi gogorra (larrua)	«Zelako narrua daukazu, putakume horrek!»	22
negar-zotinka hipaka, espasmoka	«...esan zigun negar- zotinka amore eman zuen azkenetako batek...»	32
neska mozolo neska mamala, kankala	«...zerbait erantzun dezakegu, baina ez neska mozolo horiei!»	101
ñaño ñimiñoa, ezdeusa, balio bakoa	«...zer dauka kalboso koipetsu eta ñaño horrek nik ez daukadana?»	62
ogerleko 5 pezetako txanpona	«Beste hirurok, ostera, ez geneukan ogerlekorik ere...»	37
ohiko betikoa, normalean egiten zuena	«...esan zidan ohiko irribarre nazkagarria erakutsiz.»	48
oinaze mina, sufrimendua	«...baina ostiral goizeko lanaldia sekulako oinazea izan zen denontzat.»	115
olgeta jostela, jolasa	«...proposamen bitxi hura, olgeta kilikagarri baten ataltzat joz...»	104
orroa oihu lazgarria, ozena	«Gainean zeukan putakumearen orroak .»	38
ostendurik ezkutaturik	«“Oinez jarraitu zuten barrualderantz, azken txokoan edari kutxen artean ostendurik zegoen ate batera heldu arte.”»	104
osterantzean bestela	«Laburbilduz: bestelako amaiera nahi dugu! Osterantzean , greba egiteko prest gaude!»	101
osteratxo bueltatxoa, ibilalditxoa	«...ostegun gauetan kalean osteratxoa egin ondoren...»	74



otseme otso emea	«Ea otseme hutsa den eta kokoloarena egiten nabilen.»	79
ozpindu garratzua, umore bakoa	«...irakasle veterano ozpinduek urtean zehar emandako aholkuei jaramon egin?»	63
ozta-ozta juxtu-juxtu, doi-doi	«...zu ere... Sofia zara ala? – esan zuen ozta-ozta , hitz totelka...»	99
patxadaz lasaitasunez, tentsio barik	«Martin azken baten pertsona ona da eta espero dot patxadaz berba eginaz arazo guztiak konpontzea.»	24
pikutara popatik hartzera, zakutik	«Nire neskalagunak be sinistu egin dau eta pikutara bialdu nau.»	23
pitoi titiburua, pezoia	«...bestela ez lirateke horren tenteak izango. Begiratu zelako pitoiak ...»	86
plazaratu kaleratu, atera	«...duela gutxi Mikel Urdangarinek plazaratu duen disko bikaineko kanta bat.»	9
popahandi ipurtandia, ipurdi lodia	«...atso popahandi bat aurkitu zuen han barruan...»	90
popatik hartzera pikutara (atzetik hartzera)	«— Hoa popatik hartzera! »	30
pot eginda etsita, lur jota	«...hiru bekadunak pot eginda geratu ziren euren txokoan...»	97
potro barrabila, adorea	«...zelako potroak dauzkadan!»	53
potroetaraino egon kokoteraino egon, nekatuta	«...egia esan, potroetaraino nengoen irakasle bizimoduarekin.»	67
potrojorran alferkerian, alprojarena egiten	«...eta gehiago atzezin zitziola eguna potrojorran ematea lanpeturik egotea baino.»	116
prestu ekimenekoa, lanerako ona	«Proiektu berria gauzatu eta logistika kontuak hobeto antolatzeko lankide prestuak beharko nituzke.»	49
sasi-ogibide lanbide antzekoa, ez benetakoa	«...eta oso serio ekin zion sasi-ogibide berriari.»	116
sikera behintzat, bederen	«— Badirudi baietz. Nik espero dot, sikera , irakurleen laguntzari esker, luze barik ehun milagarren ale horretara ailegatzea...»	25
sine die elkartzeko egunik (finkatu) gabe	«Enpin! Adio sine die .»	20
so begira, adi	«Hurrengo minutuak neska haiei so eman zituzten...»	96
sonadun famatua, ospe handikoa	«— Ibon Zaldibia, Euskal Herriko Unibertsitateko katedradun eta literatur kritikari sonaduna .»	18
suertatu zoriz gertatu	«Ni ikasle nintzenez desiratzen egoten nintzen horrelako azterketak suertatzeko ...»	60
taxutu antolatu, prestatu	«Hortik Aurrera, eman beharreko pausoak asmatzen eta tentuz neurtzen aritu ginen, eta ohera joaterako taxututa geneukan plan bat...»	127
tentuz kontu handiz	«Hortik Aurrera, eman beharreko pausoak asmatzen eta tentuz neurtzen aritu ginen, eta ohera joaterako taxututa geneukan plan bat...»	127
tontolapiko pepelo, ergela, leloa	«Etorri irekin dantza egitera, tontolapiko hori.»	55
trauskileria aldrebeskeria, ganorabakokeria	«...lige saioak, kalabazak, mozkorrak, egindako trauskileriak , jasotako putadak...»	131
trikimailu engainua, amarrua	«Joder, ba lehenengoan irakurri nuen liburu baten funtzionatu zuen trikimailuak .»	61



txahala bota botaka egin, okadaka	«Oskar dago komunean txahala botatzen .»	78
txilibitua zakiltxo	«Ea, gorde txilibitua eta etorri gurekin. Eta ez zipriztindu, kontxo!»	67
tximaluze zapa, ile luze gaizki orraztua	«...azken hitzak gaizkile itxurako tximaluze putakume hark ahoskatu zituen...»	48
txortan jardun larrua jotzen aritu	«...zuk gura baduzu, goizeko zortziak arte txortan jardungo dugu eta gero gerokoak.»	74
umeldu busti, hezetu	«Ardura dizu lehenengoz mihiaren puntaz nire zulotxo pixka bat umeltzea? »	30
urdanga emagaldua, prostituta	«—Errainetaraino sartuko dizut nire buztantzarra, urdanga hori!»	31
usopasa usoen migrazioa	«...kokagune harka aukera bikaina eskaintzen baitzuen usopasa oparoa ikusteko...»	91
zakar desatsegina, latza	«...itaundu zien halako baten Sofia zerbitzariak ahoskera zakar samarrez.»	100
zapuzgarri deprimentea	«Hazi-bankuko bizipen zapuzgarriaren osteko elkarrizketa luzeen ondorioz...»	92
zatar itsusia	«...hain zatarra ote naiz?»	62
zeharo erabat, guztiz	«Irene zeharo edanda dago.»	54
zerritona urdanga, likitsa	«Nik uste dut zerritona horrek zerbait nahi duela nirekin...»	86
zilarrezko sastagaia zakila	«Nire zilarrezko sastagaia gori-gori dago.»	29
zipriztindu txipliztadak bota	«Ea, gorde txilibitua eta etorri gurekin. Eta ez zipriztindu , kontxo!»	67
ziztrinkeria gauza eskasa, huskeria	«...eskuak juxtu-juxtu bete? Hori bai ziztrinkeria! ...»	85
zurrumurru marmarra, xuxurla, ahapeka berbaz	«Ez dut zurrumurrurik nahi!»	59